

Olotzaga



Olotzaga baserria izan zen probintzia fundatu zuten aurrenekoetako bat, eta Gipuzkoako Ondare Nazionalen sartuta dago. Hainbat pertsona ospetsu bizi izan dira bertan; esaterako, Martin de Olotzaga eta Santa Kruz apaiza. Lehenengo erregearen erregidorea izan zen

Donostian; apaizak, berriz, babeslekutzat hartu zuen baserria. Santa Kruz apaiza, gainera, Hernialden apaiz egon zen eta II. Gerra Karlistan gerrillari ospetsua izan zen.

Eraikin bikaina da. Zuriberritutako harrizko horma ederrez gain, eskantzuak eta kofadurak harlanduzkoak ditu. Bestalde, artisauzko teilak kanalean jarrita dauzka eta teilatua bi isurkikoa du. Horretaz gain, fatxada nagusian hareazko armarrria ez ezik, hormapikoan idibegizko leiho bat ere badauka. Barruan, berriz, garai batean San Migelen kapera bat bazela uste da.



Sarbideak



Informazio orokorra

Festak:

Abuztuak 15: Andra Mariaren Zeruratzea, Herriko Festak.
Irailan: Gazte Festak.

Zerbitzuak:

Udaletxea: 943 654494
Tolosaldea Bus (autobus zerbitzua): 943 650621
Jolasparkea
Frontoia

Jatetxeak:

Elketa: 943 653992
Ostatu: 943 652496



Disenatua, inbentariatu eta marketizatuak: Galermys

IBILALDIAK TOLOSALDEAN BARRENA



HERNIALDE

Hernialde barrena

8 Km.

PR-Gi 124

ESKUALDEKO TURISMO BULEGOA

Santa Maria plaza, 1 • Tel. 943 697 413 • Fax: 943 676 213
E-mail: tolosaldeatour@euskalnet.net • Web: www.tolosaldea.net

1 Izenak berak adierazten duen legez, **Hernialde** Hernio mendiaren hegoaldean dago, Oria bailara behealdean duelarik, Tolosa eta Anoeta bitartean. Eraikin-multzorik trinkoena elizaren inguruan dago; hortxe hasten da, hain zuzen ere, ibilbide hau. Herriko gainerako eraikinak Zuloaga bailaretan sakabanatuta daude.




2 Herriarengoialdean, Muñoandieta eta Agerre baserrien artean, **Aizkoateko haitzuloa** dago. 150m. luzera dituen kobazulo hau H.Breuilék aurkitu zuen 1.917an. Sarrera zabala du, egun oso hondatua badago ere, bi galerietan irekitzen dena, eta hauetatik troka eta tximini batzuk ateratzen dira. Leundutako aizkora bat aurkitu zuten bertan; beraz, bazen gizakirik lurralde honetan historiaurrean. Esaten dutenez, haitzuloaren barruan laku handi bat omen dago lurperatuta, eta hortik sortzen omen da izen bereko iturria.



3 **Lepazuria** mustelido bat da, lepahori, erbinude eta igarabaren senidea. Edozein baso eta landazabaletan bizi da, eta baita gizakia bizi den eremuetan ere. Gure lurraldean karraskari txiki, fruta eta intsektuez elikatzen da. Lepazuriak urritu egin ziren, pizti zaleek eta tranpa-jartzaileek harrapatzen zituztelako. Horiek urritzean, ordea, lepazuriaren populazioa ugartzen joan da, eta gaur egun lepazuriak ugari egoteaz gain Europako populazioarekin komunikatuta daude. Bestalde, "espezie ez mehatxatua" bezala katalogatuta dago.



4 Etxolatza baserriaren ondoan **karobi** bat dago. Karobiaren ataka, duen tamanaigatik gailentzen da. Karea artasoroetan erabiltzen zuten batez ere. Izan ere, kareak lurraren azidotasuna gutxitu eta lurra harrotu egiten zuen; horrez gain, lurra desinfektatu egiten zuen, eta baita ongarritu ere, hainbat mineralen bidez.



Iraupena	Luzera	Desnibela
2o.15'	8000 m.	250 m.

Hernialdeko plazatik abiatuta, elizaren atzekaldekik, eskubira hartu eta errepedera jaisten gara.hau zeharkatu eta Igor-txiki, Urrukane eta Urrutikoetxea baserriak pasako ditugu. Hemendik Iriarte eta Sagastira joan eta hemen Aizkotako iturrira doan gurdibidea hartuko dugu. Aurreneko bidegurutzean eskubira hartuko dugu Bidaurrera joateko. Hurrengo bidegurutzetan ezkerretara hartu eta Haginetako basoan barneratuko gara. Hurrengo bidegurutzean eskubira hartuz eta bigarrenengoan ezkerretara Etxolatza baserriara helduko gara. Zuzen joanaz, Aizkotako iturritik gertu azalduko gara eta eskubitik jaitsiz, Zuloaga errekarantz, PR-Gi 114tik gertu dagoen bidegurutzera. Ezkerretara hartuta Olotzagako bailara jaitsiko dugu borda bateraino eta hemen ezkerretatik Ulanganea baserriara igoko gara. Gero, Olotzaga, Saraon, Tomaseneatik Maletxera heldu eta errepedea utziko dugu bide zaharretik Goienetxera igotzeko. Urkitzen belardi bat pasa, errepedea zeharkatu eta Iturburu baserriara joango gara. Hemen ezkerretara biratu eta berriro ere errepedean azalduko gara. Parean dugun bidea hartu eta laster plazara iritsiko gara.

